



**Justice For Kurds**

**NAZIOARTEKO EKIMEN KANPAINA:**  
“Kurduentzako Justizia”

**PKK EB-EKO ERAKUNDE TERRORISTEN  
ZERRENDATIK KENTZEKO DEIA**

Bakearen, benetako demokraziaren eta Giza Eskubideen izenean, PKK erakunde terroristen zerrendatik kentzeko eskatzen diogu Europar Batasuneko Kontseiluari.

Ezinbesteko baldintza da Kurdistango gatazkari irtenbide baketsua eman ahal izateko eta Turkia eta Ekialde Hurbileko egonkortasuna eta ehun demokratikoa berrosatzen hasteko. Turkiako errepublikak eta bertako komunitate kurdu zabalak negoziazioen bitartez baino ezingo du irtenbide baketsu hori lortu. Negoziazio hauek gatazka honetan inplikaturako alde guztiak hartu beharko dituzte kontutan, PKK (Kurdistango Langileen Alderdia) barne, jakina. Honetan guztian, PKK erakunde terroristen zerrendatik ez ateratzea bake sendo baten bidean oztopoa da.

Pisuzko arrazoi praktikoak eta legezkoak daude PKK zerrendatik ateratzeko. PKK erakunde terroristen zerrendan sartu zuten 2002an Turkiak, NATOko kidea bera, hala eskatuta. Baina badira erabaki honen kontrako aurrekari judizial sendoak. Honen adibide da 2018an, Luxemburgon dagoen Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak ebatzi izana 2014 eta 2017 urteen bitartean PKK EBko erakunde terroristen zerrendan bidegabeki mantendu zela Europar Batasuneko Kontseiluak erabakiaren alde erabilitako argudioen aurrean. Auzitegiak, argudio hauek guztiak sakon aztertuta, baliogabeak zirela ebatzi zuen. Honen arabera, ez da arrazoi nahikorik azaltzeko zergatik dagoen PKK zerrenda honetan. Prozedura akatsez gain, sententziak aipamen berezia egin zion Abdullah Öcalanek 2013an bakearen alde eginiko deiari, Kontseiluak aipatu ere egin ez zuena bere argudiaketan. Era berean, Belgikako auzitegiek 2020an PKK terrorista gisa izendatzearen baliozkotasuna aztertu zutenean, ebatzi zuten ez zela egokia izendapen hau nazioartekoa ez den gatazka armatuko parte baita, ondorioz gerra legedia da aplikagarria kasu honetan eta ez Zigor Zuzenbidea.

Honetaz gain, PKK zerrendan sartzean ez zen kontutan izan Ekialde Hurbileko egungo egoera: ez ziren 2013-2015 arteko bake prozesua eta PKK/herri kurduaren eta turkiar gobernuaren arteko negoziazioak aintzakotzat hartu. Ez eta herri kurduak Ekialde Hurbilean hartutako papera ere, adibidez Estatu Islamikoa (EI) deritzonaren kontrako borrokan izandako garrantzia.

2014ko udan EIak bere «kalifatoa» aldarrikatu eta Irak eta Siriako lurralde zabalak inbaditzen hasi ondoren, Turkiako estatuak laguntza eskaini zion batez ere eremu kurduak erasotzeko orduan. PKK-k berriz, funtzio erabakigarria izan zuen EI eta bestelako talde mertzenarioen kontrako borrokan eta haien porrotean.

EI eta beste talde mertzenarioen gorakadak Ekialde Hurbileko lehentasunak aldatu ditu. PKK-k EIren eta beste talde mertzenarioen kontra aurrera eramandako borroka, Irak eta Sirian terrorismoaren aurka eginiko ahaleginei laguntza handia ematen die. PKK-k Makhmour, Sinjar eta Kirkuk (Iraken) eta Kobanê eta Siria iparraldeko beste eremu batzuen defentsa eta askapenean lagundu du. Garrantzitsua da gogoratzea 2014ko abuztuan, PKK-k korridore humanitarioa irekitzen lagundu zuela EIk Sinjar mendian harrapatuta zituen hamarnaka milaka yazidi erreskatatzeko.

Herri kurduaren historian, beste edozein mugimenduk ez du lortu PKK-k lortutakoa milioika kurdu autodeterminazio eskubidearen alde mobilizatu. Ziurtasun osoz esan dezakegu PKK

zilegitasun osoa duen Mugimendua dela eta oinarri sozial zabal eta sendoa duela Ekialde Hurbileko eta disaporako kurduen artean.. PKK bera da emakumeen askapena babestu eta bultzatzen duena Ekialde Hurbilerako demokrazia sozailaren aldeko dinamika estrategiko moduan.

**Justice for the Kurds**

Web: [www.justiceforkurds.info](http://www.justiceforkurds.info) E-Mail [info@justiceforkurds.info](mailto:info@justiceforkurds.info) Twitter: [@Justice4\\_Kurds](https://twitter.com/Justice4_Kurds)

Terrorismoaren aurkako gerra globalaren testuiguruan, Estatuak «terrorista» izendapena arma politiko gisa erabili dute oposizioari zilegitaduna kentzeko eta askatasunaren eta Giza Eskubideen alde eginiko ahaleginak zapaltzeko; turkiar estatuak herri kurdoarekin egin duen bezala. PKK zerrendan sartzea nonahi kurduen aurkako erasoak justifikatzeko erabili da, praktika diskriminatzaileetatik hasita konfrontazio militarra. Aitzakia honen pean adierazpen askatasuna erabat mugatu da eta askatasun zibilak ezabatu; oposizioko alderdi politikoak, egunkariak, telebista kateak eta abar erditik kentzea eta desagerraraztea ekarri du. Buruzagi politikoak, parlamentuko ordezkariak, alkate hautetsiak, kazetari kritikoak terrorismoaren aitzakiapean espetxeratu dituzte. Honek guztiak ekarri du desberdintasun eta desoreka endemikoak ez aintzat hartzea eta arazo sozialei ez jaramon egitea, guzti guztia gerraren eremura bultzatuaz. Gauzak honela, Europar Batasuna erregimen autoritarioen erasoak estaltzeko erabiltzen da.

Bakea, askatasuna, demokazia, egonkortasuna eta Giza Eskubideen alde, PKK EBeko erakunde terroristen zerrendatik berehala kentzea eskatzen dugu.

### **Sinatuta:**

- **Elfriede Jelinek** – Writer/Nobel Prize in Literature, Austria
- **Slavoj Žižek** – Philosopher, Slovenia
- **Janet Biehl** – Author, Copy Editor, and Graphic Artist, USA
- **Selay Ghaffar** – Women’s Right Activist and Spokesperson for Solidarity Party of Afghanistan
- **Miguel Urbán Crespo** – Member of the European Parliament, Spain
- **Srećko Horvat** – Philosopher/Croatia
- **David R. K. Adler** – General Coordinator of Progressive International
- **Roberto Rampi** – Senator, Member of the Parliamentary Assembly of the Council of Europe (PACE), Italy
- **Paolo Ferrero** – Former Minister, Vice President of the European Left party, Italy
- **Gorka Elejabarrieta Díaz** – Senator of Spain and Director of International Relations and Policy for EH Bildu
- **Norman Paech** – Expert in International Law, Germany
- **Kariane Westrheim** – Chairperson of the EU Turkey Civic Commission (EUTCC), Norway
- **Nils Andersson** – Writer and Publisher, France
- **Joel Dutto** – Member of the Kurdistan Solidarity Coordination, France
- **Nora Cortinas** – Co-founder of Mothers of the Plaza de Mayo, Argentina
- **Achin Vanaik** – Peace activist, retired Professor of “International Relations and Global Politics”, University of Delhi, India
- **Michael M. Gunter** – Secretary-General of the EU Turkey Civic Commission (EUTCC), USA
- **Berthold Fresenius** – Lawyer, Germany
- **Raúl Prada Alcoreza** – Lecturer at the San Andres University/Bolivia
- **Roland Denis** – Former Minister of Planning, Venezuela
- **Villo Sigurdsson** – Former Mayor of Copenhagen Denmark
- **Pernille Frahm** – Former of the European Parliament and Member of Parliament, Denmark
- **Benny Gustavsson** – Chairman of the Kurdistan Support Committee, Sweden
- **Erling Folkvord** – Writer & Former MP, Norway
- **Håkan Svenneling** – Member of the Parliament, Sweden
- **Jonas Staal** – Artist and Propaganda Researcher, New World Summit/Netherlands
- **Rolf Gössner** – Publisher and Lawyer, Germany
- **Ludo de Brabander** – Spokesman for the Belgian Peace Organisation Vrede